

BALOREZKO PROPOSAMENAK

Gure produktuak ohikoak diren hainbat arazoen konponketa ahalbidetuko du. Alde batetik, edozein etxe garbitzeko ahalmena du, lehioak zein zorua. Beste aldetik, janariak gosariak eta afariak prestatzeko gaitasuna ere badu. Horiek direla eta, etxeko lanak betetzeko denborarik ez duten pertsonak ez dute inongo arazorik izango hemendik aurrera. Gure produktuak hitz egiteko sistema du aplikatua, horregatik, bezeroekin berba egin dezake, haiei konpainia eginez. Azken hau bakarrik bizi diren pertsonentzat konponbide bat izan daiteke.

Laburbilduz, gure produktuak sustatuko dituen balioak hauek izango dira:

Erosotasuna eta erraztasuna: Robota bizi errazten du eta horrek erosotasuna ekarriko du

Laguntza: etxeko lanetan laguntza eskaintzen du, denbora aurreztuz.

Autonomía: etxeko edozein lanetan erraz aritu zaitezke; sukaldean, garbiketan...

Bizitza hobea: kezka gutxiereko bizitza izatea ahalbidetuko du, adibidez, hurrekin edo familiarekin denbora gehiago igaro ahal izango duzu, robotak etxea garbitu eta etxea garbituko baitu.

Antzeko produktuak badauden arren, guk gertutasuna eta arreta pertsonalizatua eskeiniko diegu bezeroei edozein arazoen aurrean, Gaur egun robot hauek erosteko aukera bakarra online baita, beste herrialdeetan ekoizten direlako. Gure produktua berriz, hemen ekoiztutakoa izango da.

Ezaugarriei dagokienez, bezeroek bakoitzaren gustuetara egokitu dezake, haien gustuen arabera robotaren kolorea hautatuz, lau aukera egongo dira; beltza, txuria, arrosa eta urdina. Bestalde, robota 1,60 metroko altuera izango du, gizaki heldu baten tamainaren antzera. Aktibatua izateko, bere izena esatea nahikoa da, hasierako izena "Cypher" izango da, halere, haren izena konfigurazioan hautatzeko aukera dago.